

# Nafarroako nominalizazioez

IÑAKI GAMINDE

Gure aurreko artikuluan “Nafarroako bariedade batzutako perpaus denborazkoen” ebakitako bide biretik, oraingo honetan bariedade batzutan nominalizazio alorrean jasotako materialak aurkezten ditugu.

Nominalizazioetan aditz izenak egiteko “-TE” edo “-TZE” erabiltzen direna gauza jakina da; guk artikulua honetan gure materialetan aditz izenok eduki ditzaketan erabilerak emango ditugu, hala nola beraien hedadura geografikoa. Hona hemen jaso izan ditugunak:

- |              |              |               |
|--------------|--------------|---------------|
| 1. -tea      | 7. -tera     | 13. -tekozin  |
| 2. -teak     | 8. -terako   | 14. -tekoan   |
| 3. -tekin    | 9. -terakoan | 15. -tekoztan |
| 4. -teaz     | 10. -tetik   | 16. -tekotan  |
| 5. -teagatik | 11. -teko    | 17. -tezkero  |
| 6. -tean     | 12. -tekoz   |               |

## 1. -TEA

-TEA hau esaldiaren gune bitan ager dakiguke, subjektu gunean eta objektu gunean; adibidez:

-basuen ibiltzia ona da (Urdiain)

-oyek nai dei gu emen iyotia (Urdiain)

Ataltxo honetan interesgarria zera dugu, hots, mugatzailea aditz izenari erantsiz gero gertatzen diren bokale aldaketak, hain zuzen. Hona hemen aldaketa horiek:

## 1. -te + a > -tea

-ona da mendin ibiltzea (Leitza)

-obe da biar etortzea (Goizueta)

-gustatzen zait emen yostatzea (Labaien)

-oyanean ibiltzea ona da (Arizu)  
-umei gustatzen zayote yostaketan ibiltzea (Gartzaron)

Intzako barietatea: Leitza  
Iruneko barietatea: Goizueta  
Berako barietatea: Saldias, Ezkurra, Labaien, Zubieta  
Elizondoko barietatea: Errazu  
Lizasoko barietatea: Arizu, Gartzaron, Etxaleku

2. -te + a> -tia

-aurrei gustatzen dakiyo jolasien ibiltzia (Arbizu)  
-obe zu seittun fatia (Hondarribia)  
-mendiyan ibiltzia ona da (Bera)  
-atzendu zaire atarie istia (Auza)  
-obia da tortzia bier (Muskiz)

Burundako barietatea: Urdiain  
Uharteko barietatea: Arbizu  
Iruneko barietatea: Oiartzun, Hondarrabia  
Berako barietatea: Bera, Lesaka, Etxalar, Arantza, Sunbila, Legasa, Ituren  
Elizondoko barietatea: Arraiotz  
Lizasoko barietatea: Muskiz, Auza

3. -te + a> -tie

-aurreri gustatzen dakiyue jostatzie (Lizarraga)  
-mendiyan ibiltzie oso ona da (Lakuntza)

Burundako barietatea: Lizarraga  
Etxarriko barietatea: Etxarri  
Uharteko barietatea: Lakuntza, Uharte

4. -te + a> -tee

-oeri gustatzen zaye jatee ongi (Oderitz)  
-gustatzen zait emen yostatzee (Beruete)

Uharteko barietatea: Oderitz, Arruitz  
Lizasoko barietatea: Beruete

5. -te + a> -te

-umeri jostatze gustatzen zaye (Huizi)

Intzako barietatea: Huizi

6. -te + a > -ti

-ez eiltzi oso txarra da (Arraras)

Lizasoko barietatea: Arraras

2. -TEAK

Aditz izena subjektua izanik ergatiboaren markarekin ere ager dakuguke; adibidez:

-ez ongi ikustiek buruko miñe ematen du (Uharte)

-ez ongi kustiak maten du buruko miñe (Auza)

3. -TEKIN

Berau era bitara ager dakuguke soziatibo hutsa dela; adibidez:

-oi esatekin eztezu ezer konpontzen (Urdiain)

-kontentu noo ikustieki (Etxarri)

Edo denbora alorreaan <sup>1</sup>:

-atta etortzikin gu lanin gaude (Legasa)

-akitzeekin yoanen gara itxera (Saldias)

4. -TEAZ

Hau ere era bitara ager dakiguke, modal gisa eta baldintza gisa; hona hemen adibide batzu:

Modal gisa:

-gustora nao zu ikustiaz (Bera)

-konten nao ikusteaz (Saldias)

Ere hau honako herriotan agertu izan zaigu: Arruitz, Bera, Lesaka, Saldias, Etxalar, Errazu, Arraiotz. Arizun -TEAZ barik -TIAS agertzen da; adibidez:

-konten nago zu kustias

1. Adibide gehiago gure "Nafarroako barietate batzutako perpaus denborazkoetz", (FLV-56, 1990) artikuluan ikus daitezke.

Era honek badu beste aldaki bat -TEZ; adibidez:

-pozik nao zu ikustez (Lakuntza)

Azken hau Lakuntza, Oderitz, Oiartzun, Ezkurra eta Berueten agertu zaigu.

Bestalde, era honetako esaldiak egiteko beste era hauek ere agertzen dira:

-TEA

-oso kontento niok i ikusti (Arraras)

-konten nago kustia (Muskiz)

Berauek Arbizu, Uharte, Arraras, Garzaron, Etxaleku eta Muskiz-en agertzen dira.

-TEN

-kontentu nao emen egotten (Leitza)

-TA

-konten niok i ikusita (Hondarrabia)

-Z

-konten nago ikusiz (Legasa)

Baldintza gisa:

-txarki eiteaz obeto da auztea (Urdiain)

-gaizki itzittes ohea isilik yotia (Etxaleku)

Berau Urdiain, Etxarri, Arbizu, Lakuntza eta Etxalekun agertzen zaigu.

## 5. -TEAGATIK

Bataz beste leku guztietan erabiltzen dela esan dezakegu, hala ere, badira aldaki batzu, adibidez:

-pozik no zu ikusteati (Urdiain)

-berdura jaten diet ez gizentzeatik (Lizarraga)

-presaka ibiltzietis bota in da (Etxarri)

-ez afaltziati fan dia (Arbizu)

-presaka fateati bota in naiz (Uharte)

-iitxi dot atarii ez ozteatik (Arruitz)

-yateut berdure ez gizentzeagatik (Auza)

6. -TEAN

Berau denbora alorrean erabiltzen da<sup>2</sup>; adibidez:

- etortzean ikusi zaittot (Ezkurra)
- itxetik ateatzian zakurrek ozka in dio (Etxaleku)
- sua piztutzian itxi atia (Bera)

Badira halaber beronen aldaki batzu; adibidez:

- ateatzien ataiye ertsit (Uharte)
- zuek akabatzen yonanen gara itxera (Legasa)

7. -TERA

Hemen ikusiko duguna finala da; gauza jakina da bestalde barietate batzutan agertzen den “-TEN”en ordez ere hainbat lekutan “-TERA” agertzen dela, berau, hala ere, geroago ikusiko dugu. /r/ maiz galtzen da bokalen artean, hori dela eta “-TEA” agertzen zaigu. -TERA final gisa barietate guztietan erabiltzen da; hona hemen adibide batzu:

- etorri nok ama ikustea (Lizarraga)
- etor neiz ama ikustea (Etxarri)
- itxea noye jatea (Uharte)
- apaltzea joain gaa amaboston bat (Huizi)
- afaltzera yongo gara amabost bat (Goizueta)
- etorri naiz ama ikustera (Ituren)
- torri naiz ama kustera (Errazu)
- afaltzea joain ga amabost bat (Etxaleku)

8. -TERAKO

Berau denbora alorrean erabiltzen da, erabilera bi eduki dezakeelarik, bata ekintza baino lehenagokoa adieraztekoa, edo beste era batera “baino lehen” erabiliz adierazten dena adieraztekoa; eta bestea, berriz “orduko”, “bezain laster”, antzekoena adieraztekoa; hona hemen adibide batzu:

2. Adibide gehiago gure “Nafarroako barietatea batzutako perpaus denborazkoetz”.

8.1.

- bazkaltzen asteako eskuek garbitak (Lizarraga)
- bazkaltzeako garbittu eskuk (Oderitz)

8.2.

- gu fateako fanik zeen (Lizarraga)
- aik etortzeako gu lanen gai (Huizi)
- etortzeako akaatuik yoin da (Etxaleku)

9. -TERAKOAN

Berau lehen ikusiriko -TEAN horren esanahi berberaz erabiltzen da; adibidez:

- etortzeakuan ikusi zaittut (Hondarrabia)
- ateitzeakuan itxizu atia (Sunbila)
- itxetik ateratzerakuan zakurrek ozka in dio (Arizu)

10. -TETIK

Berau “utzi” aditzarekin baino ez dugu jaso; dena dela, ez da berau “utzi” aditzarekin agertu izan zaigun bakarra, beste ondoko hauek ere jaso ditugu:

- TEARI
- TEA
- TEAZ

*-TETIK*

- gariya ereiteti autzi in dai (Urdiain)
- utzi dube gariye eraitteti (Lakuntza)
- orrek fumatzetik lajatu dik (Hondarrabia)
- utzi dute ogie ereitetik (Errazu)
- utzi du fumatzetik (Garzaron)

*-TEARI*

- orrek utzi dau fumatziai (Urdiain)

-TEA

- utzi due garie eraittie (Uharte)
- orrek fumatze utzi do (Leitza)
- orrek utzi du erretzia (Oiartzun)
- ogiya eraittia utzi dute (Bera)
- orrek utzi du fumatzia (Arantza, Sunbila)

-TEAZ

- gari eraitzez utzi dii (Arruitz)
- utzi due garie eraittez (Huizi)
- utzi dute garie eraites (Etxaleku)

11. -TEKO

Beronek erabilera desberdinak eduki ditzake, hala nola, konpletiboa, finala, aditzondo gisa eta izen lagun gisa; azken honetan, beste euskalkietako -TEKOTAN edo -TEKOTZAT erabili beharrean, “idea”, “asmo” eta abarrekin batera maiz agertzen zaigu. Ikus ditzagun erabilera guztiak banan banan.

11.1. Konpletiboa

- ezteat esan ekartzeko (Urdiain)
- amak esan duut yooteko emen (Etxarri)
- eztut eskatu ekartzeko (Lakuntza)
- amak esan do emen eoteko (Arruitz)
- eztut galdetu ekartzeko (Bera, Etxalar)
- erran tzizo orreri ekartzeko dena (Labaien)
- errayozu kartzeko dena (Errazu, Arraioz)
- amak erran du emen egoteko (Auza, Muskiz)

11.2. Finala

- au yoos diet aurrai emateko (Lizarraga)
- au yoos det aurrai emateko (Etxarri)
- fan neiz tiendaa ator bat oosteko (Arbizu)
- lana akaatzeko badaukiu denboa franko (Huizi)
- autobusa artuu Irunea fateko (Hondarrabia)
- au ekarri dut zuk erametteko (Bera)
- au erosi dut aurreri mateko (Arraioz)
- yateut berdurie ez gizentzeko (Muskiz)

### 11.3. Aditz lagun gisa

- oi etortzeko da (Urdiain)
- ori doo etortzeko (Etxarri)
- oi etortzeko dao (Uhartea, Oderitz, Leitza)
- oi dao etortzeko (Garzaron)

### 11.4. Izen lagun gisa

- orrek duka bildurra botatzeko (Urdiain)
- eztaka gogoik jateko (Etxarri)
- bildurre dauke eroitzeke (Arruitz)
- erortzeko bildurre do (Leitza)
- orrek beldurra du eroitzeke (Legasa)
- beldurre zaukik erortzeko (Arraras)

Gorago esan bezala, beste barietate batzuetako -TEKOTAN edo -TEKO-TZAT adierazteko beste hauek jaso ditugu:

#### 11.4.1. -TEKO *intentziokin*

- fan naiz dendaa atorra bat iosteko intentzioekin (Urdiain)
- itteko intentzioekin joan naiz baña eztoz ein (Oderitz)
- yoan naiz tiendara ator bat erosteko intentziokin (Sunbila)

#### 11.4.2. -TEKO *asmotan*

- guekin itziteko asmotan etor dia (Urdiain)
- dendaa yoan naiz atorra bat erosteko asmotan (Leitza)

#### 11.4.3. -TEKO *asmoan*

- tiendaa joan naiz atorraat eosteko asmoan (Arruitz)
- guekin itzitteko asmoan etorri dii (Ezkurra)
- etor de guekin jolas itteko asmoan (Etxaleku)

#### 11.4.4. -TEKO *asmoarekin*

- etorri dee guekin itzeitteko asmoekin (Arruitz)
- yoan naiz tiendara ator bat erosteko asmoekin (Auza)

#### 11.4.5. -TEKO *ideetan*

- etor ttuk guekin itzitteko ideetan (Lizarraga)



11.4.6. -TEKO *idean*

- dendaa yoan naiz atorra bat erosteko idean (Leitza)
- jun naz dendaa alkondara bat eosteko idean (Oiartzun)
- gurekin solas iteko idean etorri dire (Etxalar)
- torri dire gurekin solas iteko ideyan (Errazu)
- guukin itzitzeko idean etorri dok (Arraras)

11.4.7. -TEKO *ideaz*

- gan naiz tiendara ator baten erosteko ideyaz (Errazu)

11.4.8. -TEKO *idearekin*

- fan neiz dendaa ator bat yoosteko ideaki (Etxarri)
- dendaa fan nok ator bat yoosteko idiaki (Lizarraga)
- dendara fan nak kamisa bat erosteko ideakin (Hondarrabia)
- gurekin solas itteko ideakin etorri dire (Bera)
- torri dire gurekin mintzatzeko ideakin (Arraioz)
- yoan naiz ator bat erosteko idiakin (Garzaron)

11.4.9. -TEKO *gogoarekin*

- gan naiz tiendara ator bat erosteko gogoekin (Arraioz)

11.4.10. -TEKO *pentsamentu(ta)n*

- etor dire gurekin solas itteko pentsamentutan (Lesaka)
- yoan naiz tiendara ator bat erosteko pentsamentun (Labaien)

12. -TEKOZ

Egitura moeta hau baldintza gisa erabiltzen da, beste barietate batzutako -TEKOTAN delakoaren orde; adibidez:

- gaizki solas ittekoz obia ez in (Lesaka)
- gaizki solas itekoz obe batere ez itia (Arraioz)

13. -TEKOZIN

Nominalizazio hau, hedadura murrizta duen arren, baldintza gisa erabiltzen da; adibidez:

- gaizki ittekozin obe yaus ere ez ittia (Legasa)
- solas gaizki ittekozin obe ixilik egotia (Legasa)

14. -TEKOAN

Nominalizazio moeta hau denbora alorrekoa dugu, lehen ikusi dugun -TEAN horren parekoa da; hona hemen adibide batzu:

- atatzekuen itxi ataya (Urdiain)
- etortzekoan ikusi zaittut (Oderitz)
- sue piztutzekoan erre in da (Huizi)
- atetzekun atia itxitzen du (Oiartzun)

15. -TEKOZTAN

Berau baldintza gisa erabiltzen da, guri Berako barietatean baizik ez zaigu agertu; hona hemen adibide batzu:

- gaizki solas ittekoztan isilikan egon (Bera)
- gaizki ittekoztan ez ittia obia (Lesaka)

16. -TEKOTAN

Nominalizazio hau, aurrekoa bezala, baldintza gisa erabiltzen da; hona hemen adibide batzu:

- gaizki ittekotan obe da uztie (Lizarraga)
- gaizki itzittekotan obe da ixilik eotee (Oderitz)
- gaizki ittekotan ez ittea ohea da (Leitza)
- gaizki ittekotan obe duk bertan utzi (Hondarrabia)
- gaizki ittekoten obe da utzitzea (Labaien)
- gaizki mintzatzekotan obe egon isilik (Errazu)
- gaizki yolas ittekoten obia da ixilik egotia (Auza)

17. -TEZKERO (Z)

Aurreko biak bezala, berau ere baldintza gisa erabiltzen da; adibidez:

- gaizki itzitteezkeoz obe ixilik eotee (Arruitz)
- gaizki eittezkeo obe da batez ein (Huizi)
- gaizki itezkeoz utzi (Hondarrabia)
- amarretan afaltzezkeo oain prestato bearra da (Ezkurra)
- gaizki ittiaskeo utzi in gabe (Muskiz)
- gaizki itteskeros obia da ez ittia (Auza)

Azkenik lan hau ahitzeko -TEN, -TERA, -TEA eta beste batzuren artean gertatzen den banakuntza, nahiz erabileran, nahiz geografian, ikusi ahal izateko, kontutan hartuta esaldi nagusiaren aditzaren arabera hautatzen direla, materiala aurkezteko aditzez aditz emango ditugu.

ASPERTURIK EGON

Egitura honekin ondoko era hauek agertu izan zaizkigu, bakoitza non agertzen den bidenabar adierazi egingo dugu:

1. ESPEROAN/ESPERAN:

Uharte: Arbizu eta Lakuntza

Intza: Huizi eta Leitza

Bera: Etxalar, Sunbila, Ituren eta Labaien

Elizondo: Errazu eta Arraioz

Lizaso: Auza

-aborrittua nao espean (Arbizu)

-aburrittue nao esperoan (Huizi)

2. -TZEZ:

Burunda: Lizarraga

Etxarri: Etxarri

Uharte: Arruitz

Bera: Bera eta Ezkurra

-aburrittuik noo espeatzez (Etxarri)

-espetziáz aspertua nago (Bera)

3. -TZEN:

Burunda: Urdiain

Uharte: Uharte

Bera: Lesaka, Saldias eta Legasa

Lizaso: Beruete, Arraras, Garzaron, Etxaleku eta Muskiz

-aburrittua nao espeatzen (Legasa)

-aspertuta nao espiatzen (Etxaleku)

NEKATURIK EGON

Egitura honekin honako hauek jaso ditugu:

1. -TEN

Burunda: Urdiain

Uharte: Arbizu, Lakuntza, Arruitz eta Oderitz

Intza: Leitza

Bera: Lesaka, Ituren, Saldias eta Labaien

Lizaso: Beruete, Garzaron eta Muskiz

-nekatua nago belarra moztutzen (Lesaka)

-nago nekatuik belarra bakitzen (Muskiz)

2. -TZEZ

Burunda: Lizarraga

Uharte: Uharte

Bera: Bera, Etxalar, Legasa eta Ezkurra

Elizondo: Errazu eta Arraioz

Lizaso: Etxaleku eta Auza

-nekatute niok belarra ebaitzez (Lizarraga)

-nekatua nago belarra ebakitzez (Legasa)

3. -TZETI

Etxarri: Etxarri

-nekatuik noo belarra ebaitzeti (Etxarri)

EGIN AHALAK EGIN/SALATU...

1. -TEN

Burunda: Urdiain

Uharte: Oderitz eta Arruitz

Intza: Leitza

Bera: Lesaka, Etxalar eta Ezkurra

Lizaso: Beruete

-akabatzen iññalak iñen ttot audo (Oderitz)

-alein inko dot listo despeitzen (Urdiain)

2. -TERA

Burunda: Lizarraga

Bera: Legasa, Ituren, Saldias eta Labaien

Elizondo: Errazu eta Arraioz

Lizaso: Auza

-egiñala egiñen dut akitzera agudo (Ituren)

-iññala iñen dut fite akitzera (Errazu)

3. -TEKO

Bera: Bera

-egiñalak iñen ttut agudo akautzeko (Bera)

4. -TEA

Etxarri: Etxarri

Uharte: Lakuntza

Intza: Huizi

Lizaso: Etxaleku

-intentatuko et akabatzie listo (Etxarri)

-prokuratuko dut agudo akabatzia (Etxaleku)

## OROITU

Aditz honi doakionez, bereizketa ttiki bat eginen dugu; alde batetik, indikatiboarekin, eta berriz beste aldetik aginterarekin jasoriko esaldiak ematen ditugu.

### 1. INDIKATIBOAREKIN

#### 1.1. -TEKO

*Burunda: Urdiain*

*Etxarri: Etxarri*

*Uharte: Uharte*

-akordatu in neiz yoosteko (Etxarri)

-akordatu naiz iosteko (Lakuntza)

#### 1.2. -TEA

*Burunda: Lizarraga*

*Uharte: Arbizu eta Arruiz*

*Intza: Leitza eta Huizi*

*Bera: Bera, Lesaka, Legasa, Etxalar, Saldias, Labaien eta Ezkurra*

*Elizondo: Errazu*

*Lizaso: Etxaleku eta Muskiz*

-akordatu neiz oostia (Arbizu)

-oroitu naiz erostia (Etxalar)

#### 1.3. -TERA

*Bera: Ituren*

*Lizaso: Auza*

-oroittu naiz eroitera (Auza)

#### 1.4. -TE(A)Z

*Uharte: Uharte eta Oderitz*

*Elizondo: Arraioz*

*Lizaso: Garzaron*

-akordatu naiz iyostez (Oderitz)

-akordatu naiz eostes (Garzaron)

#### 1.5. -TEN

*Lizaso: Beruete*

-oroittu naiz egosten (Beruete)

## 2. AGINTERAREKIN

### 2.1. -TEKO

*Burunda: Urdiain*

*Etxarri: Etxarri*

*Uharte: Lakuntza*

-akordatu zaitetz iosteko (Urdiain)

-akorda zaitte yoosteko (Etxarri)

### 2.2. -TEA

*Burunda: Lizarraga*

*Uharte: Arbizu*

*Intza: Huizi eta Leitza*

*Bera: Bera, Lesaka, Etxalar, Legasa, Saldias eta Labaien*

*Elizondo: Errazu*

*Lizaso: Etxaleku eta Muskiz*

-oroiztie erostia (Etxalar)

-oroittu zaitte erostia (Muskiz)

### 2.3. -TERA

*Bera: Ituren*

-ori zitte eroatera (Ituren)

### 2.4. -TE(A)Z

*Uharte: Oderitz eta Arruitz*

*Bera: Ezkurra*

*Elizondo: Arraioz*

*Lizaso: Beruete eta Garzaron*

-akorda zaitte iyostez (Oderitz)

-oro zaitte erostiaz (Arraioz)

## JAKIN

Jakin aditzarekin leku guzietan -TEN nominalizazioa baizik ez dugu jaso; hona hemen hedadura eta adibideak:

Burunda: Urdiain eta Lizarraga

Etxarri: Etxarri

Uharte: Arbizu, Lakuntza, Oderitz eta Arruitz

Intza: Leitza

Irun: Oiartzun eta Hondarrabia

Bera: Bera, Lesaka, Etxalar, Saldias, Legasa, Labaien, Ituren eta Ezkurra

Elizondo: Errazu eta Arraioz

Lizaso: Beruete, Arraras, Garzaron, Etxaleku, Muskiz eta Auza

-orrek baatik itten (Lizarraga)

-orrek kantatzen badaki (Ezkurra)

## AUSARTU

### 1. -TERA

Burunda: Urdiain

Etxarri: Etxarri

Uharte: Arbizu eta Lakuntza

Intza: Huizi eta Leitza

Bera: Bera, Etxalar, Sunbila, Legasa eta Ituren

Elizondo: Arraioz

Lizaso: Garzaron, Etxaleku eta Auza

-atrebittu da arrapatzea (Lakuntza)

-atrebittu de artzera (Auza)

### 2. -TEA

Burunda: Lizarraga

Uharte: Oderitz eta Arruitz

Irun: Oiartzun eta Hondarrabia

Bera: Lesaka, Saldias, Labaien eta Ezkurra

Elizondo: Errazu

Lizaso: Beruete, Arraras eta Muskiz

-atrebittu duk artzia (Hondarrabia)

-atrebittu da artzee (Beruete)

## UTZI

### 1. -TEN

Burunda: Urdiain eta Lizarraga

Etxarri: Etxarri

Uharte: Arbizu, Lakuntza eta Oderitz

Intza: Huizi

Irun: Oiartzun eta Hondarrabia

-utzi duubie pasatzen (Etxarri)

-utzi deye pasatzen (Huizi)

### 2. -TERA

Bera: Bera, Etxalar, Sunbila, Legasa, Ituren, Saldias eta Labaien

Elizondo: Errazu

Lizaso: Arizu

-utzi diate pasatzera (Saldias)

-utzi direte pasatzera (Arizu)

3. -TEA

Uharte: Arruitz eta Uharte

Intza: Leitza

Bera: Lesaka eta Ezkurra

Lizaso: Beruete, Arraras, Garzaron, Etxaleku, Muskiz eta Auza

-utzi diebe pasatzea (Uharte)

-utzi ditte pasatzia (Lesaka)

EMAN

Aditz honekin Hondarrabian izan ezik badirudi leku guzietan -TERA erabiltzen dela; hona hemen adibide batzu eta berauen hedadura:

Burunda: Urdiain eta Lizarraga

Etxarri: Etxarri

Uharte: Lakuntza eta Oderitz

Intza: Huizi

Bera: Bera, Lesaka, Etxalar, Sunbila, Ituren, Legasa, Saldias, Labaien eta Ezkurra

Elizondo: Errazu eta Arraioz

Lizaso: Arizu, Beruete, Arraras, Garzaron, Etxaleku, Muskiz eta Auza

-yatera eman naute (Bera)

-man datate yatera (Errazu)

-man direte yatera (Auza)

Hondarrabian -TERA barik -TEN agertu zaigu; adibidez:

-jaten eman ziatek

IKASI

Aditz honekin leku guzietan -TEN baizik ez zaigu agertu; adibidez:

Burunda: Urdiain eta Lizarraga

Etxarri: Etxarri

Uharte: Arbizu, Lakuntza, Oderitz eta Arruitz

Intza: Huizi eta Leitza

Bera: Bera, Lesaka, Etxalar, Legasa, Ituren, Saldias, Labaien eta Ezkurra

Elizondo: Errazu eta Arraioz

Lizaso: Beruete, Garzaron, Etxaleku, Muskiz eta Auza

-ikasi u txistuba jotzen (Arbizu)

-txistu yotzen ikasi do (Ezkurra)



ERAKUTSI

1. -TEN

Burunda: Urdiain eta Lizarraga

Etxarri: Etxarri

Uharte: Lakuntza, Oderitz eta Arruitz

Intza: Huizi eta Leitza

Bera: Bera, Lesaka, Etxalar, Legasa, Saldias eta Ituren

Elizondo: Errazu eta Arraioz

Lizaso: Beruete, Garzaron, Etxaleku, Muskiz eta Auza

-yakutsi diot itten (Oderitz)

-erakutsi diote yotzen (Muskiz)

2. -TEKO

Uharte: Arbizu

-eakus diot eitteko (Arbizu)

3. -TEA

Bera: Labaien eta Ezkurra

-eakutsi in diot eittea (Ezkurra)

HASI

Aditz honekin leku guzietan -TEN agertu izan zaigu; hona hemen esaldi eredu batzu eta hedadura:

Burunda: Urdiain eta Lizarraga

Etxarri: Etxarri

Uharte: Arbizu, Lakuntza, Uharte, Oderitz eta Arruitz

Intza: Huizi eta Leitza

Bera: Bera, Etxalar, Ezkurra, Lesaka, Legasa, Ituren, Labaien eta Saldias

Elizondo: Errazu eta Arraioz

Lizaso: Arizu, Beruete, Garzaron, Muskiz, Etxaleku eta Auza

-asi de jaten (Uharte)

-yaten asi naiz (Arizu)

LAGUNDU

Aditz honekin, Labaienen izan ezin, leku guzietan -TEN baizik ez zaigu agertu; adibidez:

Burunda: Urdiain eta Lizarraga

Etxarri: Etxarri

Uharte: Arbizu, Lakuntza, Oderitz eta Arruitz

Intza: Leiza eta Huizi

Bera: Bera, Etxalar, Lesaka, Legasa, Ituren, Saldias eta Ezkurra

Elizondo: Errazu eta Arraioz

Lizaso: Arizu, Auza, Beruete, Garzaron, Etxaleku eta Muskiz

-lagundu diot despeitzen (Lakuntza)

-lagundu diot akitzen (Saldias)

Labaienen -TEN horren ordeaz -TEA agertu izan zaigu; adibidez:

-nik lagundu diot akitzia

## PARATU

Aditz honekin ez zaigu inongo salbuespenik suertatu eta leku guzietan -TEN jaso dugu; adibidez:

-jana paatu ut berotzen (Oderitz)

-patu dut bazkarie berotzen (Arraioz)

## GELDITU

Aditz honekin, Uharte salbuespen bakarra izanik, leku guzietan -TEN agertu izan zaigu; adibidez:

-gelditu da afaitan (Urdiain)

-apaltzen geldittu de (Leitza)

Uharten beste hau jaso dugu:

-oi geldittu da afaittaa

## SEGITU

Aditz honekin ere ez zaigu salbuespenik agertu, leku guzietan -TEN jaso dugularik; adibidez:

-orrek estudiantzen seitzen do (Arruitz)

-orrek seitzen du estudiantzen (Garzaron)

## HARRAPATU

Aurrekoarekin bezala, leku guzietan -TEN jaso dugu; adibidez:

-ori arrapatu u ostutzen (Arbizu)

-arrapatu due ebasten (Labaien)

## ZAILA IZAN

Egitura honekin honako aldakiok agertu izan zaizkigu:

### 1. -TEA

Burunda: Urdiain

Uharte: Arbizu, Lakuntza eta Arruitz

Bera: Legasa, Ituren, Saldias eta Labaien

Elizondo: Arraioz

Lizaso: Etxaleku, Muskiz eta Auza

-zail da siñestia (Legasa)

-zalle da siñestatzia (Auza)

### 2. -TEN

Uharte: Oderitz

Intza: Huizi eta Leitza

Irun: Oiartzun

Bera: Bera, Etxalar, Lesaka eta Ezkurra

Lizaso: Garzaron

-oi da zalle siñistatzen (Huizi)

-ori zalla da siñesten (Bera)

### 3. -TEKO

Etxarri: Etxarri

-ori zalle da sinistatzeko (Etxarri)

## ERRAZA IZAN

### 1. -TEA

Burunda: Urdiain eta Lizarraga

Uharte: Arbizu eta Uharte

Bera: Legasa eta Labaien

Elizondo: Errazu

Lizaso: Etxaleku eta Auza

-oi aise da eittie (Uharte)

-oi errexia da ittea (Etxaleku)

### 2. -TEKO

Burunda: Urdiain

Etxarri: Etxarri

Uharte: Lakuntza eta Arruitz

Intza: Huizi

Bera: Saldias  
Elizondo: Arraioz  
Lizaso: Beruete eta Muskiz

-ori errexa da iteko (Arraioiz)  
-ori oso erraza da eitteko (Lakuntza)

### 3. -TEN

Uharte: Oderitz  
Intza: Leitza  
Bera: Bera, Lesaka, Etxalar, Ituren eta Ezkurra

-ori errexa da itten (Ezkurra)  
-oi erreza da eitten (Oderitz)

## LABURPENA

Artikulu honetan, FLV-56 aldizkarian perpaus denborazkoen ebakitako bide beretik, Ipar Goi Nafarreraren eremuan jasotako nominalizazioen erabilpen ereduak plazaratzen dira.

Aditz izenaren deklinabidearen bidez erabiltzen diren era desberdinak, hala nola berauen aldakiak eta bakoitzaren hedadura geografikoa ere, ematen dira.

## RESUMEN

En este artículo se dan a conocer los modelos de uso de la nominalización en el dominio del dialecto Alto-Navarro según los mismos criterios utilizados para las oraciones temporales en FLV-56.

Se especifican las diversas formas utilizadas por medio de la declinación del verbo sustantivado, las variantes de cada una de ellas y su extensión geográfica.

## RESUME

Cet article montre les modèles d'utilisation de la nominalisation dans le domaine du dialecte de la Haute-Navarre selon les mêmes critères utilisés pour les phrases temporelles du FLV-56.

L'article montre les différentes formes utilisées avec l'aide de la déclinaison du verbe substantivé, la variété de chacune d'elles et son étendue géographique.

## SUMMARY

This article shows the models that can be used in the nominalization, in the command of the High-Navarrese dialect, according to the same criteria used for the temporary sentences in FLV-56.

The various forms used are specified through the declension of the verb used as a noun, the variants of each and its geographical extension.